...eta kitto!

893 zkia.
2014-VI-13




# Golak euskaraz...

# MUNDIALAK!



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com



# Anchústegui

www.anchustegui.com

Olaso industrialdea: Olasope, 5 Tel. 943 74 33 44
ELGOIBAR



Mahaia eta bi aulki tolesgarriak
**99,00** euro



**64,95** euro
Moon besaulki tolesgarria
(hainbat koloretan)



Aulkirako 2 kojin
**21,95** euro



Egurrezko farolak
**13,95** euro-tik aurrera



Green tutu malgu kit-a
**10,95** euro-tik aurrera



**7,95** euro
Ironside pistola



Soropil moztekoa
**199** euro



Ironside 450w hesi moztekoa
**44,95** euro



Lily barbakoa
**249** euro

## BURDINDEGIA

*Hemen daukazue*
***Udaberri-Udako katalogoa.***
*Zatoz zurearen bila.*
*Harrituko zara*
***gure prezioak** ikustean.*

* Lorategiko altzariak
* Jantzitegiak eta babesgarriak
* Margoak
* Material elektrikoa
* Iturgintza
* Eskuzko erremintak
* Erreminta elektrikoak
* Burdindegi industriala
* Eraikuntzako materialak
* Etxeko tresnak



Barbakoa eramangarria
**34** euro



Arte ikatza (3, 10 eta 20 kilokoa)



Propano gas bidezko paella egiteko sua



Pizketa ekologikoko pastillak (24 unitate)



Compo substratu unibersala
**4,35** euro-tik aurrera

ZERAMIKA ETA HARRIA | LURZORU LAMINATUA | MARGOTUTAKO PAPERA | BAINUGELA | BURDINDEGIA | ERAIKUNTZA MATERIALAK

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KANPAIPIAN.- Leku bat bere osatasunean adierazteko. *"Eibarko kanpaipian, Eibar guztian".*
AINGERU-KANPAI.- Ume bat hiltzen zenean parrokian jotzen zan hil-kanpaia. *"Aingeru-kanpaiak dihardu, zeiñen umia ete da?".*

# ASTEAN ESANAK

"Zigarreta elektronikoa produktu berria da, etengabe aldatzen ari dena eta, gutxi ikertu den arren, badakigu ez dela kaltegabea. Gainera, bitako kontsumoa oso ohikoa da; zigarreta elektronikoa erabiltzen duten askok tabakoa erretzen segitzen dute"
(ESTEVE SALTO, SENDAGILEA)

"Zoriontsu sentitzen direnak enpresariak eta erretiratuak dira; gainera, erretiratuek berebiziko garrantzia ematen diote norbere burua barkatzeari. Kontrara, zorigaizto handiena ikasleengan sumatu dugu. Ikasleek pentsatzen dute zoriontasuna eta arrakasta kanpoko pertsonen eraginpean daudela"
(Mª JESUS ALAVA, PSIKOLOGOA)

"Euskal Telebista piztu. Nola hitz egiten du jendeak euskaraz? Frantzian berriz, ipurdia galdu beharrean, frantsesez ondo hitz egiteko. Italian berdin. Eta Espainian, ahoskera ederrenaren bila, inflexio egokienak baliatzeko, seduzigarri izateko... Gurean, jendeak nola hitz egiten du euskaraz? 250 hitz baino ez ditugu erabiltzen. Horrela ezin duzu sentimendurik azaldu ez ezer. Heriotzara goaz!"
(EUKEN OSTOLAZA, TENORRA PARISEN)

"AEBetako golf federazioan oso kezkatuta daude azken hilabeteotan bost milioi lizentzia galdu dituztelako. Baina arazo guztiek omen dute irtenbidea eta hor ere aurkitu dute eurena: zuloak lau aldiz handitzea, euren maila hobetu ezin dutenentzat"
(KOLDO ALDALUR, KAZETARIA)

# eskutitzak

## PERTSONA GUZTIEN GIZARTERATZEA BULTZATZEN URKIKO JAIETAN

Aurten ere Urkiko jaietan protagonista bereziak izan ditugu: ATZEGIko lagunak (Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten pertsonen elkartea). Mendiko martxan Eibarko Txolarterekin batera ibilbidearen zati bat osatu zuten aldarte onean, horrela gizarteko partaide direla erakutsiz.

Aldi berean, lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu Urkiko jaietan gazteentzat eskubaloian, foballean, esku pilotan, "Txiki-kros-ean" eta "Galdaramiñoko mendi lasterketa-n" lagundu diguten guztiei: Urkiko Jai Batzordea, Eibarko Udala (alkatetza, udaltzaingoa), Eibarko Kirol Patronatua, Eibarko Klub Deportiboa (mendia eta atletismo sailak), DYA, Nemak, Cepa, Eskarne jatetxea, Flori-Yeyi ileapaindegia, Salaberria bitxi-denda, Mara-Mara mendiko kirol denda, Oreka masaje zerbitzua, Kaiku, Eroski, Coca-Cola, Kirolprobak, SER, Arrate Irratia, Berria eta **...eta kitto!** astekaria eta, batez ere, boluntarioei, eurek gabe ez baitzen posible izango aipatutako kirol ekintzak antolatzea. Horien artean, aurten azpimarratu nahiko genuke Uzartzako Bergaretxe txabolakoen laguntza Atzegikoak etxean moduan sentituarazteagatik. Eskerrak parte hartzaileei ere eta hurrengo urtera arte!

**GALDARAMIÑO ML ANTOLAKUNTZA - URKIKO JAI BATZORDEA**

## 40-AK LIBRE!

2009. urtean Euskal Herriaren alde lan politikoa egiteagatik, 40 gazte atxilotu, inkomunikatu, torturatu eta espetxeratu egin zituzten. 2013ko urrian, gazteen kontrako makroepaiketa luzea hasi zen; horrek Madrilera joan etorri ugari eta gastu ekonomiko izugarria ekarri du, bakoitzaren egunerokotasunean eragindako kaltea ahaztu gabe.

Asteazkenean auzitegi nazionaleko epailearen sententzia jakin genuen: **absoluzioa**, hau da, 40ak **libre**! Oraingoan sententzia aldekoa izan bada ere, ezin aipatu gabe utzi, gazte hauez gain, epaiketaren zain dauden ehundaka auziperatuak. Argi daukagu gazte horien aurkako operazioak eta beste guztiak Euskal Herriaren aldeko lana kriminalizatzea dutela helburu, errepresioaren bitartez ideiak bahitu nahi dituztela. Horregatik, gure elkartasun guztia helarazi nahi diegu auziperatu guztiei eta ozen esan konpromisoz lanean jarraituko dugula epaiketa guztiekin bukatu arte. Borrokan ospa dezagun... **euskal gazteria libre!**

**ERNAI**

## AZKEN ORDUKOA

### ARABA EUSKARAZ: EZ DA AUTOBUSIK IZANGO

Domekan Lapuebla de Labarcan egingo den Araba Euskaraz-era joateko autobuserako oso jende gutxik eman du izena. Hori dela-eta, J.A. Mogeleko Gurasoen Elkarteak eta ...eta kitto!-k antolatu ohi duten autobus zerbitzua bertan behera lagatzea erabaki dute oraingoan. Barkatu eragozpenak.

**...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA**


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** J.A. Mogel Ikastola
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.100 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



## Eibar, “ZurrumurruEZ!” ekimenarekin bat

**Eibarrek, Gipuzkoako beste bost udalerri eta Tolosaldia osatzen daben 28 herrixekin** eta SOS Arrazakeria alkartiarekin batera "ZurrumurruEZ" ekimena sortu dabe. Aurreko astian presentau eben programiak "beste herrialde batzuetatik gurera etorrittakuen kontra bolo-bolo erabiltzen diran zurrumurruak geratzia eta aniztasunaren ezagutza sustatzia" billatzen dau. Aittatutako udalerrixak euren burua *"zurrumurruen kontrako lurralde"* izendatu dabe eta, horreri jarraittuta, *"personiaren etnia edo jatorrixa edozein dala be, daneri errespetua zor jakuela"* diñue. Horrekin batera, SOS Arrazakeriak eta sariarekin bat egindako udalak hainbat ekintza eta materixal garatuko dittue, inmigraziñuari lotutako zurrumurru eta estereotipuekin amaitzeko asmua betetzeko. Bestiak beste komiki-txartelak, eskuorrixak eta zurrumurruen kontrako taulak herrittarren artian banatzeko asmua dake.

## Txontarako aldaketak

**Txontari eragingo detsan aldaketia egin dabe Eibarko Hiri Antolamendurako Hirigintza Plan Nagusixan** eta oin jendaurreko informaziño-epia zabaldu dabe, interesa dakan edozeiñek aldaketiari lotutako alegaziñuak presentatzeko aukeria euki deixan. Planari egin detsen laugarren aldaketia da hau eta bertan Txontako Mahaikuen birrordenaziño-aurreikuspen guztiak, eta etxebizitza barrixak eraikitziaren inguruko eta enpresak tokiz kanbixatzeko erabagixak jaso dittue. Hasierako asmua oingo etxe gehixenak finkatzia eta 500 etxe barri jasotzia da, baiña etxe batzuk bota egingo dittue. Aldaketari buruzko dokumentaziño guztia www.eibar.net helbidian ikusi leike eta, bestela, udaletxera, Hirigintza saillera juan leike galdetzera. Alegaziñuak presentatzeko azken eguna uztaillaren 7xa izango da eta idatziz egin biharko dira, Pegoran.


*Carmelo Urdangarin debarra saritu eben azken edizifiuan.*

## Gure Balioak sarirako hautagaixak

**Debabarrenian gizarte baliuen arloan nabarmendu dan perstona edo erakundieri egindakua aitortzeko** Gure Balioak Sarixak bosgarren edizifiua beteko dabe aurten. Sarixa jasotzeko hautagaixen proposamenak uztaillaren 15era arte jasoko dittue eta epe horren barruan edozeiñek izango dau bere hautagaixa presentatzeko aukeria, beti be hautagaixak gure eskualdian jaixotakuak edo euren jarduna bertan garatutakuak izan biharko dirala kontuan eukitta. Epai-mahaikuak aukeratzen daben hautagaixak Juan Luis Baroja Collet artistiak egindako eskulturia jasoko dau. Sarixaren gaiñeko informaziño osua eta bete biharreko inprimakixa gurebalioak.com webgunian eskuratu leikez. Iazko edizifiuan Carmelo Urdangarin debarra saritu eben.

## Antoni Benaiges-en dokumentala




**Memorixa historikua berreskuratzeko ekitaldi sorta antolatu dau Alternatibak** asteburu honetarako, "Isiltasuna lurpetik ateratzen Euskal Herrian. Antoni Benaiges itsasoa promestu zuen maisua" izenburuari jarraittuta eta, horren harira, bixar 12.30xetan "El retratista" dokumentala emongo dabe Arrate Kultur Elkartean.





Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

## Zientzia-Berrikuntzaren izendapena barrittu dabe



**Espaiñiako ekonomixa ministerixuak oin dala hiru urte Eibarri emondako "Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiri" izendapena** barriztatu detsa eta, bete biharreko helburuak beteta, gure herrixak Innpulso sariaren barruan segiduko dau. Epai-mahaixak hainbat arrazoitan oiñarritu dau izendapena barriztatzeko erabagixa eta, bestiak beste, oso modu positibuan balorau dau *"gure herrialdeko barrikuntzaren alde Eibarrek egin daben ahalegiña"*. Miguel de los Toyos alkatiak pozik hartu dau albistia eta, bere eritziz *"Eibar eredu eta erreferentzia izan da, oin be bada eta prestakuntza teknologikuaren eta teknikuaren alorretan ez eze, ekintzailletasunaren eta barrikuntzaren kulturan be hala izaten segidu nahi dau"*.

## Sarixa Etxeberriarendako



**Roberto Lopez Etxeberria eibartarrak aurreko astian jaso eban Espaiñiako Moda Sarixen barruan** banatu daben Diseiñatzaile Gazte Onenari sarixa. Bestiak beste moda munduko pertsonaia garrantzitzuenak eta Letizia Ortiz printsesa batu zittuan ekitaldixak. Etxeberriak pozarren jaso eban sarixa eta hurrengo hitzordurako, Woolmark International Prize lehiaketarako preparatzen hasitta dago.

# autuan

### ENNECO AZALTZEKO HITZALDIXA

**Nafarroa Bizirik Fundaziñoko Patxi Abasolo Lopez eta Vicente Azpilikuetak hitzaldixa emongo dabe "Enneco haritzaren memorixak" zen izan nahi daben azaltzeko, Arrate Kultur Elkartean 19.00etan. Aurreratu dabenez, "euskal estatutuaren memorixa historikua berreskuratzeko asmuarekin sortu dan Ennecok ikerketia, hausnarketia, bateratzia eta kultur egitasmo partehartzaillia eta bizixa izan nahi dau". Informaziño gehixagorako www.enneco.org helbidera jo leike.**

### ANDRENDAKO IKASTARUA

**Datorren asteko eguaztenian, 15.00etatik 17.00etara atzerriko ikasketa ez unibersitarixuen titulaziñuaren homologaziñuari buruzko ikastarua emongo dabe Andretxean, Lanbiden izenemonda daguazen emakumiendako. Lanbide eta hiru.com-ekin antolatutako ikastaruan titulaziño horren homologaziñua zelan egitten dan erakutsiko dabe. Informaziño gehixagorako Andretxean galdetu (09.00etatik 13.00era, 943700828 telefonora deittuta).**



## asteko 4.079 datua

langabetu eguazen Debabarrenian maiatza amaieran, 2.174 andra eta 1.905 gizon; aurreko hillian baiño 21 gizon gitxiago eta 9 andra gehixago.

# Edarto ospatu zittuen jaixak Urkin

**Aurreko barixakuan hasi eta domekara bittartian ondo baiño hobeto pasau eben Urki auzuan, jai batzordekuak antolatu eben programiari esker.** Eguraldixa lagun euki eben eta asteburu osuan jende morduak egiñ eban bat jaixarekin. Barixakuan, bestiak beste, Ustekaberen kalejirak eta The Vartools, Lentejuelas eta AZ/DZ taldiak emondako kontzertuak girotu eben jaixa. Zapatuan III. Txiki Krosarekin hasi eta egun guztian egon zan jaixetan parte hartzeko aukeria, auzoko kaliak nahi beste ekitaldi hartu zittuelako. Arratsaldian tabernarixak 160 kilo langostino eta 360 txanpan botilla banatu zittuen aurten lehelengoz Tarumba perkusiño taldekuak girotutako txikiteuan. Ciclon orkestiak gabian eskindutako berbeniak agurtu eban zapatua. Eta domekan Atzegikuen parte-hartzia euki eban mendi-martxarekin ekin zetsen egunari eta pixkat gerotxuago urten eben Urki-Galdaramino-Urki lasterketan parte hartu eben korrikalarixak. Eta jaixen azken egunian egindako guztien artian, eguardixan urtero parte-hartze haundixa eukitzen daben XVI. paella lehiaketia egiñ eben.



# Isekin alkartiaren presentaziñua

**Aurreko zapatuan presentau eben Isekin alkartia gurian, egun osuan Untzagan** egindako ekitaldi diferentiekin girotutako jaixan. Alkarte solidarixuak "Soñadores de esperanza" dalakuarekin hainbat ipuiñ emon dittu argittara, hórrek salduta batzen daben diruarekin gaixo larriren bat daken umien famelixeri laguntzeko asmuarekin. Alkartiak Egigurentarrenen kalian daka egoitza eta Eibarren euren ekimenarekin bat egin daben kolaboradorien zerrendia egunetik egunera luzatzen doia poliki-poliki.





*Zapatuan Untzagan egindako ekitaldixetan gaixo larriren bat daken umien famelixeri lagundu nahi detsez Isekinek.* LEIRE ITURBE



# Tripontziak lehiaketia twitterren

**Gaur abiatuko da hillaren 29ra arte martxan egongo dan Debabarreneko "Tripontziak" lehiaketia.** Debegesak sustatuta, gure eskualdeko Produktu Klubeko kide diran hamabi jatetxeren eta lau pintxo-tabernaren partaidetza daka: jatetxiak Itziarko Txindurri Iturri, Kanala, Lasturko taberna, Salegi, Errota Berri eta Hostal Itziar; Debako Calbeton eta Urgain; Mutrikuko San Juan eta Jarri Toki; Elgoibarko Belaustegi; eta Eibarko Azitain erretegixa dira eta pintxo-tabernak, barriz, Itziarko Salegi, Debako Urgain eta Eibarko Kultu eta Koskor dira. Lehiaketan parte hartzeko, bezeruak jatetxe edo taberna horretako batian jandakuari argazkixa egiñ eta Twitterrera igo biharko dabe, #tripontziak idatzitta. Parte hartzen dabene artian hainbat sari banatuko dittue. Gaiñera, aittatutako taberna eta jatetxiak menu eta pintxo berezixak dastatzeko aukeria emongo dabe lehiaketia martxan daguan bittartian, prezio berezixan (jatetxietan 25 euroko menuak eta tabernetan pintxo bi eta edari bi 4 eurotan). Informaziño gehixagorako www.debabarrenaturismo/eu/gastronomia webgunian begiratu leike.

Bestalde, aurreko astian Eibarko Museuan hasittako Esperientzia Gastronomikuen programaren barruan, ekaiñian beste bi saio eskinduko dittue: hillaren 19xan Mendaroko txokolate fabrikara bisitia eta txokolate-taillarra egingo dira eta 20xan Elgoibarko Belaustegi jatetxiak "Tex mex" saiua hartuko dau. Parte hartu nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau Debegesara, 943820110 telefonora deittuta.

Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefonoa: 943 25 61 00

Telefonoa: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com

# POLIKLINICA GIPUZKOA

# ZURE AZALA ZAINTZEKO AHOLKUAK

## Gipuzkoako Poliklinikako OSASUN-IKASGELAN



Susana Gomez
DERMATOLOGOA

## *"EGUZKIA da udako protagonista nagusia eta bere ondorio kaltegarrietatik BABESTU behar dugu"*

Datorren ekainaren 18an, asteazkena, "Zure azala zaintzeko jakin behar duzuna. Nola babestu azala eguzkitik, dermatosiaren prebentzioa eta zahartzearen kontrako tratamenduak" izeneko hitzaldia hartuko du Portaleak, Gipuzkoako Poliklinikaren Osasun-ikasgelaren barruan. Susana Gomez medikuak emango duen hitzaldirako sarrera librea da, tokiak bete arte.

Azala organo biziduna da, aktiboa, etengabe aldatzen ari dena, eta ingurumenetik babesteaz gain, gure ingurunearekin erlazionatzen gaitu. Elikadura-ohitura txarrek, alkoholak, tabakoak, atseden-ezak, erradiazio ultramoreek… erradikal askeak sortzen dituzte, eta horiek gure organoak hondatzen dituzte, tartean, azala.

*"Eguzkia da udako protagonista nagusia eta bere ondorio kaltegarrietatik babestu behar dugu. Denok ezagutzen ditugun kremez gainera, eguzkitako betaurrekoak, kapelak eta arropa egokia erabili behar ditugu"*, Susana Gomez dermatologoaren esanetan. Eguneko ordurik arriskutsuenetan ez dugu eguzkipean egon behar, eta aire zabalean gauden lehenengo aldietan, hondartzan edo mendian, zaintza horiek arreta handiagoz egin behar ditugu.

Gomez medikuak dioenez, *"eguzkitik babesteko krema pazientearen fototipoaren, hura dagoen lekuaren eta egingo duen jardueraren arabera aukeratuko dugu, baina orokorrean, babes altuko filtroak (30etik gora) eta espektro zabalekoak izan beharko lukete. Ez dugu ahaztu behar neguan ere erradiazio ultramoreak jasotzen ditugula eta krema egunero erabili behar dugula, eta babes-indizeak altuagoa izan beharko du neguko kirolak egiten baditugu, batik bat eskia"*.

Hitzaldian, dermatologoak, aurpegiko zahartzea ekiditeko aurrerabideen berri ere emango du. *"Hobekuntza estetikorako toxina botulinikoa azkeneko urteotako iraultzarik handiena izan da. Hedatzen jarraitzen du eta toxina hori azido hialuronikoarekin nahastea gaztetze-tratamendurik onena da, beti ere modu egokian egiten bada"*, medikuaren berbetan. Hala ere, Gomezek adierazi duenez, *"gehien aukeratzen den teknika lifting kirurgikoa da; bekokia, masailak eta lepoa gaztetzeko egokiena da"*.

Azal gazteei dagokienez, hainbat zaintza kosmetiko daude azal osasuntsua izan eta lehen zimurrei aurrea hartzeko; gomendagarriena eguzkiaren kontrako krema sarri erabiltzea da, argiak zahartzean dituen eraginak ahultzeko. Kremez gainera, osagai aktiboak (retinoideak eta/edo C bitamina purua) eta osagai gaztetzaileak dituzten produktu kosmetikoak ere erabili behar dira.

**HITZALDIA:**
**"Zure azala zaintzeko jakin behar duzuna. Nola babestu azala eguzkitik, dermatosiaren prebentzioa eta zahartzearen kontrako tratamenduak"**

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA

POLICLINICA GIPUZKOA
kutxa
EL DIARIO VASCO




DATA
Ekainaren 18an
ORDUA
19.30 h
TOPALEKUA
Eibarko Portalea
Udal Kultur Etxea
sarrera
DOAN

POLICLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

*MILATIK GORA EIBARTAR, 1.100 inguru batu ziren domekan, ekainaren 8an Bergaran, Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat Eibarko taldeak deituta erabakitzeko eskubidearen aldeko gizakatean parte hartzeko (argazki bilduma …eta kitto!-ren Facebook orrian). Iruñea eta Durango bitarteko ibilbidean eibartarrek 31. kilometroa bete zuten eta askok arratsaldera arteko plana egin zuten Bergaran, giza katearen harira antolatutako ekitaldiek eta Bergarako jaiek erakarrita.*

ARGAZKIAK: LEIRE ITURBE ETA SILBIA HERNANDEZ




























*Bere lanean jardun ondoren, gure argazkilaria ere katean izan zen.*

**EMAKUMEEN BIZITZA HOBETZEAREN GAINEAN ENTITATE PRIBATUEK ~~EZ DUTE~~ ERANTZUKIZUNA BEREGANATU BEHARKO DUTE.**

* Onartzea 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua, Foru Sektore Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak sartzeari buruzkoa. Hor zehazten da berdintasuneko hainbat plan lantzeko eskakizuna, honelako alderdiak jasoko dituztenak: lan baldintzak hobetzea, sektore maskulinizatuetan emakumeak kontratatzea, bateragarritasuna eta ardura partekatua sustatzea, indarkeria matxistaren arloan prebenitzea eta esku hartzea, eta abar.

** Sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, berdintasun arloko zerga pizgarriak lehenesteko proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta: emakumeen enplegu mugagabearen sorrera eta emakumeen lan baldintzen hobekuntza; ardura partekatua, eta bizitza pertsonalaren, familia bizitzaren eta lan bizitzaren bateragarritasuna; jarrera sexisten gaineko prebentzioa eta jazarpen sexistaren gaineko esku-hartzea; eta abar.

*** 2013an, bikoiztu egin dira berdintasun klausulen kopurua, eta halakoak jasotzen dituzten kontratazio espedienteen kopurua ere bai: lehen, 32 kontratu ziren –13,7 milioi euro, guztira–, eta orain, berriz, 71 kontratu –26,9 milioi euro, guztira–.

**** 2013an, ugaldu egin dira berdintasun klausulak, baita halako klausulak jasotzen dituzten diru laguntza deialdiak ere.

Gipuzkoa BERRIA

berdintasuna** egiteko asko

www.berdintasuna.net

## Hiru txirloko Lehendakari Saria bihar Lasturren

**Aurreko zapatuan bolatoki berean jokatu zen, 67 bolariren parte-hartzearekin,** Gipuzkoako 45. Hiru Txirlo txapelketaren azken tiraldia eta, azkenean, parretan erabaki zen txapelduna, 33na berdinduta amaitu baitzuten San Andreseko Jose Antonio Nuñezek eta Elgetako Sebastian Aranzabalek. Txapela Nuñezek jantzi zuen eta txirlo bakarrera geratu zen Arkaitz Rodriguez eibartarra.. Asola Berrikoek, dena dela, hainbat mailatan irabazi zuten: emakumezkoetan Olaitz Rodriguez izan zen onena, nagusietan Bittor Astigarraga, taldeka Asola Berri A eta jubeniletan Egoitz Blanco. Bihar, 16.00etan hasita, txapelketa horretako 64 onenek Lehendakari Sarian hartuko dute parte, kanporaketa erara.

Bestalde, ohikoa denez, azken jardunaldi horretan bi lagun omendu zituzten: Jose Andres Zabala "Arrajola" eta Jose Ramon Zuluaga "Milaproz" izan ziren aurtengoak, "urte guzti hauetan hiru txirloaren alde egindako lana es-



*Omenduen eta txapeldunen argazkia, aurrean sariak dituztela.*

## Gimnasten erakustaldiak hilaren 21ean eta 22an



*Nahia Bilbao.*

Aurreko zapatuan jokatutako gimnasia erritmikako amateur mailako Euskadiko txapelketan, Ipuruako gimnastek emaitza bikainak lortu zituzten bai seniorretan eta baita jubeniletan ere. Nahia Bilbaok brontzezko domina lortu zuen senior A mailako sailkapen orokorrean eta urrezkoa zintarekin egin zuen ariketan eta Graxi Arregik zilarrezkoa beregantu zuen jubenil B mailako sailkapen nagusian. Klubak orain datorren asteko zapatuan eta domekan egingo dituen erakustaldiak dihardu prestatzen: 21ean Kiroldegian izango da eta 22an Untzagan, jaietako egitarauaren barruan.

## Boxeoa gaur Astelenan

**Azken urte guzti hauetan ohikoa bihurtu denez, boxeo jaialdia** izango da gaur gauean Astelena frontoian, 22.00etan hasita. Amateur mailako bost borrokaldi (arin, erdi, welter, arin eta astun pisuetakoak) izango dira, 3 minutuko hiru asaltoetan, azkena kenduta -hori lau asaltora egingo da-. Horrez gain, sanda profesionaleko borrokak ere izango dira: Galizia Euskal Herriaren aurka.




## Garagardo Jaia martxa betean

**Atzo arratsaldean inauguratu zuten ekainaren 20ra arte Untzagako karpak** hartuko duen Eibar Rugbi Taldearen Garagardo Jaia. Atzoko ekitaldian Kalamua judo kluba omendu zuten, baina datozen egunotan ere beste omenaldi batzuk egingo dituzte: bihar Markel Alberdi igerilaria omenduko dute eta hilaren 18an, berriz, Eibar foball taldearen txanda izango da, Garitano eta Errastiren parte-hartzea izango duen ekitaldian.

Karpa arratsaldero 19.00etan zabalduko dute eta aurten ere garagardo eskaintza zabala dago. Horrekin batera, saltxitxak, txerri-ukondoa eta oilasko-brotxetak baratxuriekin jateko aukera ere badago. Gainera, ia egunero zuzeneko musika emanaldiren batekin girotuko dute jaia.




*Urkotronik-eko Sara Abad eta Angel Villagarcia.*

## Kapitalaren %80 beteta

**Eibar Foball Taldeak egin beharreko kapital-handitzearekin jarraitzen du** eta %80ra heldu da, 1.400.000 euro bilduta. Hala ere, klubetik diotenez, *"ezin gara lasaitu bi hilabete baino gutxiago geratzen den honetan"*. Gainera, gezurtatu egin dute Liga irabazteagatik Espainiako Foball Federaziotik 300.000 euro jasoko dutenik. Bestalde, teknikoek gogor dihardute lanean eta, dagoeneko, hainbat baja eman dituzte, tartean beste urte baterako kontratua zuen Mainz aurrelariarena.

# Aitor Etxaburuk Bera Beran jardungo du



**Aitor Etxaburu eibartarra izango da Bera Bera Eskubaloi taldeko entrenatzailea hurrengo denboraldian.** 2011an Arrate eskubaloi taldea ordezkatuz Ohorezko Mailara igo zen Anaitasunarekin lau urte eman ditu Etxaburuk. Taldeak Errege Kopako lauko finala ere jokatu du aurten. Etxaburuk lehenengoz jardungo du maila horretako nesken talde bat entrenatzen eta Imanol Alvarez ermutarraren tokia hartuko du. 48 urteko eibartarra 1996an, jokalaria zela, Olinpiadetan domina lortu zuen Espainiako selekzioarekin eta Bidasoa taldea entrenatzen ibilitakoa da.

# San Juan Saria jokatuko da domeka goizean

**Eibarko Txirrindularitza Elkarteak antolatuta, domeka goizean San Juan Sari Nagusiaren 79. edizioa** jokatuko da. Junior nazional mailako proba horretan, gainera, Gipuzkoako txapela izango da jokoan. Goizeko 10.30etan irtengo dute txirrindulariek Untzagatik eta, 101 kilometro bete eta gero, 13.10ak bueltan amaituko da proba (orduka 38 kilometro egiten badituzte behintzat), ohikoa denez Unben.



# Atzegikoek aurten ere Galdaramiñon izan dira

**75 parte-hartzaile izan zituen Urkiko jaien barruan antolatzen den Galdaramiño mendi lasterketan** eta beste 45ek hartu zuten parte mendi martxan. Azken horretan Atzegi-Txolartekoak protagonista bihurtu ziren berriro ere. Lasterketari dagokionez, Aitziber Urkiola eibartarra nagusitu zen emakumezkoetan (1h22:45) eta Joseba Plaza markinarra gizonezkoetan (1h07:51). Marka, dena dela, Iñigo Lariz iazko irabazlearen eskuetan jarraitzen du (1h05:55): elgoibartarra kilometro bertikaleko Espainiako txapela jantzi du asteburu honetan, Fuente De-n.



# Xuban Hoyos karatekaren brontzezkoa

**Aurreko astean Gasteizen jokatutako eskola mailako Euskadiko finaletan,** Kalamua-Anaitasunak hiru ordezkari izan zituen: Miren Elorza, Jon Iglesias eta Xuban Hoyos. Azken hau podiumera igo zen, lortutako brontzezko dominari esker. Bestalde, zapatuan Azkoitian jokatutako ikasturte amaierako erakustaldian ere izan ziren Kalamuako hainbat karateka, ehun bat kirolari bildu zituen jardunaldian.

# Eskubaloiko kadeteak txapeldun

**Tekniker Eibar Eskubaloiak Gipuzkoako Kopa** irabazi zuen asteburuan finalean Usurbili 29-38 nagusituz. Partidua Ipuruan jokatu zen eta giroa ederra izan zen, 500etik gora ikusleekin.



Saratsuegi, 5
943-257605
APARKATZEKO arazorik gabe
Restaurante La Jara



SANJUANETAKO MENUA
Hasteko – Urdaiazpikoa
– Gula eta ganben entsalada epela
Bat aukeratu – Txipiroiak tintan edo
– Entrekota, patata eta piperrekin
Amaitzeko – Postrea
20 € (BEZ barne) Urteko Rioja ardoa, Rueda zuria, sagardoa, ura eta ogia BARNE.

Baditugu ere ERAMATEKO eskaintzak:
OILASKO ERREA (osoa) patata frijituekin 10 €
ETXEKO PIZZA + 6 hegal + 6 nugget + 2 freskagarri 12 €

# GAZTEEN EUSKARA ikertuta, eguaztenean aurkeztuko dira EMAITZAK



**Eibarko gazteek euskaraz egiten dute? Asko? Gutxi? Noiz eta non darabilte gehien? Horrelako galderei eta beste askori erantzuten ahalegintzeko asmoz, …eta kitto! Euskara Elkartean gazteen euskararen erabilerari buruzko ikerketa egin zuen 2013an eta emaitzak datorren asteko eguaztenean, 19.00etan, …eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartean) aurkeztuko dituzte.**

**Datorren astean ezagutzera emango dituzten emaitzek errealitatea ahalik eta modurik zuzenenean islatzeko,** herriko gazteen lagin zabala aztertu dute. Euskara elkartearen barruan normalizazioaz arduratzen den Ainara Labadok azaldutakoari jarraituta, "18 eta 28 urte bitarteko 600 lagun baino gehaigo elkarrizketatu genituen, gazteen euskara gaitasuna zein den jakiteaz gain, noiz, nola, norekin eta zenbat erabiltzen duten jakiteko. Ikerketako atal batzuen emaitzen berri maiatzean Portalean egindako Euskararen Transmisioaren Mintegian aurkeztu genituen, aurrerapen gisa, baina oraingoan, datorren asteko aurkezpenean ikerketaren emaitzak bere osotasunean emango ditugu. Zalantza barik, aurkezpenean esango ditugunak oso interesgarriak izango dira, herritar guztientzat orohar eta bereziki ikerketako aztergaia izan diren gazteentzat. Horrez gain, bereziki interesgarria egingo zaie irakaskuntzan zein bestela, edozein esparrutan gazteekin diharduten guztientzat. Horregatik aurkezpenera etortzera animatu nahi ditugu, ikerketaren emaitzen berri zuzenean jaso dezaten".




*Bikote gazteen arteko erabilera eta teknologia berriekin ematen dena ere aztertu dute.*

**Parte-hartze prozesua helburu**

Aurkezpenak helburu bikoitza dauka, Labadoren berbetan: *"Alde batetik emaitzen berri eman nahi dugu, hau da, nolabaiteko diagnostikoa edo argazkia erakutsi nahi dugu. Baina, horrekin batera, emaitza horien ondorioztapena landu eta, ondorio horietan oinarrituta, etorkizunera begira gazteen artean euskearen erabilera areagotzeko ekintza plana diseinatu nahi dugu".*

Eta plan horren diseinurako parte-hartze prozesua abiarazi nahi dute, *"ikerketaren objektu izan diren horiek, gazteak subjetu izatera pasa daitezen, errealitatea aldatzeko neurriak eta estrategiak zuzenean eurek proposatu ditzaten. Kasu honetan gure beharra bidelagun izatearena litzateke. Hau da, bigarren fase honetan gure zeregina lan-taldeetan proposatutako ekintza horiek gauzatzen laguntzea litzateke. Prozesu honetatik datozen bi edo hiru urteetara begirako plana sortzea nahi dugu, non eragin-eremuak lantzen hastea nahi dugun. Edonola ere, horretan instituzioen babesa ere beharko dugu, beharrezkoak suertatu daitezkeen baliabideak-eta eskaintzeko".*

**Ikastetxeen garrantzia**

Emaitzak aurkeztu ondoren abiatuko den prozesua ahalik eta aberasgarriena izan dadin, eguazteneko aurkezpenera zenbat eta jende gehiago agertu, orduan eta hobeto. Horregatik, jendearen interesari eusteko, ez dizkigute aurreratu ikerketaren emaitza zehatzak. Hala ere, ondorio nagusienetako batzuk kontatu dizkigute: *"Gaitasuna hobetzeko beharrean jarraitu beharko da, eta gogotik gainera; izan ere, gazteen euskara gaitasuna zein den jakinda, oso gutxi erabiltzen dute. Beraz, motibazioa gakoetako bat da. Horrekin batera, emaitzek argi erakusten dute gazteen euskararen erabileran eskolak eragin zuzena duela eta, beraz, eskolek plangintza egokiak bideratuz gero erabileran emaitzak hobetuko lirateke. Eta hainbat datu deigarririk ere badago. Adibidez, generoak bere eragina dauka, Eibarren behintzat emakume gazteek gizonek baino gehiago erabiltzen dute. Sorpresa hartu dugu, bestalde, erabilera mailarik handiena lan munduan ahozkoan ematen dela ikustean".*

---

## MARGARITA OSA IDIGORAS

*I. urteurrena (2013-VI-12)*



*"ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN".*

**Bere aldeko Meza egingo da ekainaren 15ean (domeka), eguerdiko 12.00etan, San Andres parrokian.**



# XVII. Kirola Euskaraz Bizi

## Iturburun (2014-VI-7)











**Ekainaren 7an "XVII. Kirola Euskaraz Bizi" jaia ospatu zuten Iturburun. Ikasle, behargin eta gurasoen lanari esker primerako "Olinpiada" izan da aurten ere. "Uholde gorriak" bete zuen Iturburu, euskara erabiltzea, euskaraz mintzatzea, azken finean EUSKARAZ BIZITZEA gu guztion ardura dela aldarrikatzeko. Jai giroan, KIROLTASUNEZ eta, aurten bai, eguraldia lagun, egun zoragarria pasa zuten bertan elkartu ziren guztiek.**

***BIHAR, EKAINAK 14, OLINPIADA TXIKIA***

*10:00:* Autobusa Egogai-Iturburu / *10:15-10:45:* Datorren ikasturtean Iturburura doazen ume eta gurasoek Iturburu ezagutzeko bisita / *10:45:* Haurrak kantxan egongo dira bere tutorearekin. *11:00:* Ikasle, irakasle eta gurasoek "Niri euskaraz mesedez" abestu. Kirol-ekitaldia, nagusien soka-tira saioak eta domina banaketa / *13:30:* Itzulerako autobusa




PIRATAK


TXAKURRAK


KIROLA
EUSKARAZ


TXAKURRAK












# Parte hartzea: hori garrantzitsuena!







# Gorria nagusi poseetan ere





















## Goruntz eta Deustoarrak bihar San Andresen

**Goruntz abesbatzak, Eibarren lehenengoz kantatuko duen Deustoarrak abesbatzarekin batera** kontzertua emango du bihar 20.00etan San Andres elizan. Emanaldia gero eta gertuago dauden sanjuanen harira antolatu dute. 1992an sortutako Goruntz abesbatza 17 koralistek osatzen dute gaur egun eta hemendik egun batzutara gure mugetatik kanpora eramango ditu bere kantak, ekainaren 22an Normandian, Renns-eko katedralean kontzertua ematen izango da-eta.

## 42. Udako Ikastaroak prest

**Eguaztenean aurkeztu zituzten Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako 42. Udako Ikastaroak** Iñaki Alegria UEUko zuzendariak, Irati Iciar udako ikastaroetako arduradunak eta Esther Kareaga udaleko Euskara eta Kultura batzordeetako buruak. Orotara 42 ikastaro (berez lau jardunaldi eta 38 ikastaro izango dira) prestatu dituzte uda honetarako eta horietatik 25 Eibarren, Markeskua jauregian emango dituzte, "iazko arrakasta errepikatzeko asmoz". Eibarren ekainaren 30etik uztailaren 4ra bitartean eta uztailaren 14tik 18ra emango dira; Baionan uztailaren 9tik 11ra; eta Iruñean uztailaren 21etik 23ra.



Iciarrek azaldutakoaren arabera, *"ikastaroak sei jakintza arlotan banatuta egongo dira: artea eta musika, giza-zientziak, ingeniaritza eta teknologia, zientzia aplikatuak, zientziak eta gizarte zientziak. Denen artean azken hori izango da jakintzarik nagusiena"*. Oro har ikastaro laburrak izango dira, batzuk espezializatuak, beste batzuk dibulgaziokoak eta garapen pertsonalerako ikastaroak ere badaude. Eskaintza osoa eta ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza www.ueu.org helbidean kontsultatu daiteke. Matrikula betetzeko ere helbide horretara jo daiteke eta, betiko lez, Eibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrei.

## 140 lagun Eibarren kaleetan kantuz

**Aurreko zapatuan gurean egindako Eibarren Kaleetan Kantuz jaiak zazpigarren edizioa bete zuen**. Eibartarrekin batera eguna kantuan ematera Arrasate eta Aretxabaletatik ere etorri ziren hainbat lagun eta, guztira, jaiaren inguruan 140 lagun batu ziren: Untzagako jubilatu etxean talde osoari harrera egin zien Miguel de los Toyos alkateak eta, hamarretakoa egin eta kantu-paperak banatu eta jarraian, denek elkarrekin Untzagan abestu zuten eta ondoren kalerik kale kantuan ibili ziren. Gero Unzaga Plaza hotelean bazkaldu zuten eta arratsaldean Untzagan agurtu zuten jaia. Kaleetan Kantuz taldea Esperientzia Eskolaren proiektuetako baten eskutik sortu zen eta gaur egun 70 bat lagunek osatzen dute. Urtean zehar astero entseguak egiten dituzte eta iazko irailaz geroztik Kontxi Gurrutxagak gidatzen du taldea.


*Bildutakoak Untzagan kantuan.* LEIRE ITURBE


LEIRE ITURBE

## Birakaren erakustaldi koloretsua

**Biraka dantza taldeak aurreko astean hirutan ikuskizuna eskaini zuen Coliseoan.** Kurtsoari egur esateko "Los 40 principbailes" izenburuko dantza erakustaldi koloretsu eta ikusgarria aurkeztu zuten dantza eskolako ikasleek.





## *ARANTZA ALVAREZ (artista):*

# "Denetarik margotzea gustatzen zait"

*Aurreko barixakutik Arantza Alvarez Laskurain artista eibartarraren margoak eta eskulanak ikusteko aukera dago Topalekuan. Kolore bizi-biziak dituen erakusketa hilaren 22ra arte egongo da martxan eta ohiko ordutegiari jarraituta zabalduko dute, astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.*

***- Noiztik diharduzu margotzen?***

Orain dela bizpahiru urte Maite Arriagaren pintura tailerretako batean, sormenaren hastapenei buruzkoan izena eman nuen eta orduan hasi nintzen lehenengoz koadroak margotzen. Aurretik, diseinatzaile grafiko moduan jarduten nuen beharrean, baina hori amaituta beste zerbait egin nahi nuen eta, artisau azoka batean Maite ezagutu eta bere ikastaroen berri izan nuenean, margotzen ikastera animatu nintzen eta horretan jarraitzen dut, oso gustora, gainera.

***- Ez dira urte asko igaro, baina Topalekuko hormak koadroz betetzeko adina lan ipini dituzu erakusgai…***

Eta erakusketarako ekarritako koadroak baino askoz gehiago margotu ditut, baina asko lagunei oparitu dizkiet. Koadroetako gaiak eta estiloak orotarikoak dira, akrilikoa eta beste teknika batzuk erabilita margotu ditut.

***- Zure lehen erakusketa da?***

Bai, margotzen hasi berria izanik lotsa ematen zidan erakusketa egitea, baina irakasleak berak animatuta pausoa ematea erabaki eta hemen nago. Egia esateko, aurreko barixakuko inaugurazioan zeharo beldurtuta egon nintzen, baina jende asko etorri zen eta emozio on asko izan nituen. Besteak beste Vicente Iriondo eta Iñaki Larrañaga artistak etorri ziren eta azken honek gustatu zitzaiola esan zidanean, hori gauza handia izan zen niretzat!

***- Koadroekin batera beste eskulan batzuk ere badaude erakusketan…***

Bai, koadroez gain beste gauza batzuk ere margotzen ditut: plater zuriak erosi eta margotu egiten ditut, kamisetak marrazkiekin apaindu… denetarik margotzea gustatzen zait.

***- Erakusketa iragartzeko txartelean poesia bat dago idatzita, zer dela eta?***

Interneten, nire webgunearen bidez Fabian Irusta izeneko Argentinako poeta batekin hartuemanetan hasi nintzen. Berak nire marrazkietako batzuk eskatu zizkidan eta, erakusketa egingo nuela jakin zuenean, txartelean agertzen den poesia idatzi zidan eta bihotzez eskertzen diot.




# Kontzertua, bertsoak eta txotxongiloak

**Gaur 23.30etatik aurrera Morau eta Beñardok kontzertua emango dute Beleko tabernan.** Biharko, berriz, bertso saioa antolatu dute, 19.30etan hasita, Jokin Uranga eta Unai Gaztelumendirekin. Eta domekan, 18.30etatik aurrera "Basoko ipuin laburrak" txotxongilo saioa egingo da umeentzat.



# Su Ta Gar bizi-bizirik

**Eibarko Udalak San Juan jaietarako prestatu duen egitarauaren barruan, bihar gauean** 23.00etatik aurrera Su Ta Gar taldearen kontzertua hartuko du Untzagak. Eibartarrek "Bizirik gaude" lan berria zuzenean aurkeztuko dute herriko jaietarako giroa berotzen joateko kontzertuan.



# Kokein eta Anari Bektokixan

**Berreibar Ekimen Kulturalaren eskutik sortutako Bektokixak azken kontzertua** hartuko du domekan: 19.00etatik aurrera Kokein eta Anari zuzenean entzuteko aukera izango da Bittor Sarasketa kaleko 7an kultur areto bilakatutako lantegi zaharrean.

## Dantzari Eguna gaur Untzagan



**Kezka dantza eskolako ikasturte amaierako erakustaldia hartuko du Untzaga plazak gaur 19.30etatik aurrera**, Klub Deportiboaren eta Kezka dantza taldearen ekimenez egingo den Dantzari Egunean. Urtero lez, parte hartuko duten dantzariek urtean zehar klasean prestatutako hainbat dantza aurkeztuko dituzte.

Bestalde, atzo Kezka dantza taldeko hainbat dantzarik, Tolosako Udaberri, Añorgako Arkaitz, Andoaingo Urki, Elgoibarko Haritz, Debako Gure-Kai eta Beasaingo Aurtzaka dantza taldeetako dantzariekin batera ezpata-dantza eskaini zioten Benito Lertxundiri, Eibarko Usartza Txistulari Taldearen doinura, abeslari oriotarrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik Urrezko Domina jasotzeko ekitaldian.

## laburrak

### PIANO KONTZERTUA

Domekan, 12.30etan "Zortzi musika forma eta ipuin bat" izenburuko kontzertua emango dute Isabel Laspiurren piano ikasleek Coliseoan. Sarrerak 3 euro balio du.

### MARMITAKO TXAPELKETA

Sanjuanetako Marmitako Txapelketa ekainaren 25ean, 11.30etan egingo da Untzagan. Parte hartu nahi dutenek hilaren 19rako eman beharko dute izena Pegoran (010 / 943708400 telefonoetan). Gehien jota 30 bikote onartuko dituzte.

## "El Conquis" saiokoak mahai-inguruan

**Gustora jardun zuten "El conquistador del fin del mundo" ETB-2ko lehiaketaren inguruan berbetan** Jose Luis Korta, Julian Iantzi, Joxean Goñi, Egoitz Txurruka "Txurru" eta Amaia Puertas eguaztenean, …eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta Portalean egindako mahai-inguruan. Areto nagusira joan zirenei saioari buruzko gorabeherak kontatzeaz gain, ETB-ko Euskal Herria Zuzenean albistegikoen bisita jaso zuten eta, beraz, Nahiara Gago kazetariaren galderei ere erantzun behar izan zieten.




*Boskotea herenegungo saioan.* MAIDER ARANBERRI






# GREMIOEN GIDA

## ALTZARIAK


SAT MOBEL
ZURE ETXEKO ALTZARIEN KONPONKETA ETA GARRAIOA
Eibar - Tlf: 608 076 054


## ANTENAK


BALATZ C.B.
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37
Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net
Faxa. 943 20 04 94

trinmer
Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK


## AROTZAK


IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak
Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10
Tfnoa. 943 20 35 55

SUA
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
Iparragirre Anaiak
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

ulmar S.L.
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)


## ELEKTRIZITATEA


943 530 356
688 674 242
electricidad alberto
INSTALAZIOAK ETA
instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA
WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

Ego-Gain, 9 ac.
ARGIZTAPENA, KONPONKETAK ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ibarra
677 51 24 62
943 20 06 97

Tel. 610 532 922
THELECER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko urgentziak


## ERAIKINEN MANTENUA


I.T.E. Inspeccion Tecnica de Edificios
Eraikinen Ikuskapen Teknikoa E.I.T.
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A

# Informazio gehiagorako

**943 20 67 76**


## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta mantenimendua

## IGELTSEROAK

**CAMILO ALVAREZ**
IGELTSERITZA OROKORREAN
– **Barne erreformak** (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
– **Gremioen koordinaketa**
**Jardiñeta, 25** - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

**irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
eraikuntzak erreformak igeltseritza
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

**Jardines Iturgintza**
Gasa
Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia
Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929
Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

**MUGICA**
ITURGINTZA
K21
AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...
**HANSGROHE** KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

**AIXA** DECORACIONES
José Luis Iriondo
Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR PINTURAS**
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

*Bizitza osoa beharrean eman eta gero, jubilatzean zaletasunen bat garatzera animatzen dira asko. Horietako bat da Antonio Herrero: tailerrean beharra egiteari laga eta, libre zituen ordu horiek betetzearren, denborapasa ekin zion etxeen eta bestelako eraikinen maketak egiteari. Horietako batzuk datorren astean, ekainaren 20an, 12.00etan Ipuruako jubilatu etxean inauguratuko duten erakusketan ikusteko aukera izango da, baina aurretik bere zaletasunaren inguruan berbetan egon gara.*



## ANTONIO HERRERO (maketagilea):

# "Planoei jarraituta, eskalan egiten ditut maketa guztiak"

***- Nolatan hasi zinen maketak egiten?***

Orain dela 11 bat urte hasi nintzen, jubilatu nintzenean. Aurretik, lantegian burdinarekin jarduten nuen beharrean, galdaragilea nintzen. Tarteka, libre geratzen zitzaidan denboran, burdinean gauzak egiteko aprobetxatzen nuen: traineratxoa arraunlariekin, gure etxeko sarreran dauden jarlekua, aterki-ontzia... gauza mordoa egin dut. Jubilatu nintzenean etxean burdina lantzeko modurik eta toki egokirik ez nuen; horregatik hasi nintzen egurra lantzen, etxebarruan jarduteko errazagoa delako. Nire lehen maketa garai batena izan zen eta, ondo geratu zitzaidala ikusita, beste maketa bat egiteari ekin nion, eta gero beste bat... orduak eta orduak ematen ditut. Hor daukat nire txokoa, terrazan, eta han egoten naiz nire maketetan beharrean. Bestela, soldadurarako tresnak-eta izanez gero, burdin sareak eta beste gauza batzuk burdinean egiten jarraituko nuke.

***- Eta non eskuratzen duzu maketak egiteko behar dituzun materialak eta osagarriak? Zailak dira lortzen?***

Ez da beti erraza izaten norberak behar duena aurkitzea. Normalean Bilboko brikolaje-denda batera joaten naiz erostera. Maketetarako egurrak neurrira erosi eta, ondoren, etxean, adreiluz-adreilu mozten joaten naiz, gero banan banan pegatu eta eraikina osatzen joateko. Teilatuetarako teilekin gauza bera, dendan erosi eta banan-banan ipintzen joan. Hala ere, batzuetan horrelako dendetara joanda ere, zaila da behar duzuna aurkitzea. Horrelakoak gertatzen direnean, norberak egin behar, ez dago besterik! Adibidez, esku artean dauzkadan maketa haueтako batean teilak nik egin ditut, banan-banan, igeltsuan moldea aterata.

***- Eraikinen maketak egiteko argazkiei begiratzen diezu? Zertan oinarritzen zara?***

Ahal dudan guztietan jatorrizko planoei begiratuta egiten dut lan, horiek oinarri modura hartu eta eskalara jasotzen dut maketako eraikina. Eibarko udaletxearen maketa hau, adibidez, horrela egin dut. Hasierako nire asmoa udaletxea osorik egitea zen, baina behin beharrean hasita horrek lan mordoa emango zidala ikusi eta atzeko aldea egin barik laga diot, erliebedun koadro modukoa osatuta. Bestela, arkupe barruan dauden jarlekuak eta bestelako xehetasun guztiak diren moduan kopiatu eta tamaina txikiagoan "berreraiki" ditut. Argiak eta dena ipini dizkiot, nahi izanez gero ixotzeko aukerarekin.

***- Badakizu zenbat ordu eman dituzun maketa bakoitza egiten?***

Maketa bakoitzarekin emandako orduak ez ditut zenbatzen (barrezka), bakoitza bakarra eta berezia da niretzat eta ez diot denborari begiratzen. Udaletxearena iazko urrian hasi eta aurten apirila aldera amaitu dut.

***- Maketak erakutsiko duzun lehen aldia izango da?***

Bai, familiak eta lagunek sarritan ikusi dituzte, jakina, baina bestela ez dut inoiz erakusketarik egin. Ipuruako jubilatu etxean lau urtez zuzendaritzakide izan naiz eta bestela ere han ibiltzen naiz atzera eta aurrera. Ezagunek animatuta erakutsiko ditut maketak, jubilatu etxearen goiko pisuan. Sanjuanak pasatu arte zabalik egongo den erakusketan, beste hainbaten lanak ere egongo dira ikusgai: Nikolas Zurutuzak bere makila batzuk erakutsiko ditu, jubilatu etxeko emakumeek eurek egindako mahai-tapizak eta bestelakoak… Antonio Garcia, Javier San Vicente eta beste hainbatek ere hartuko dute parte.


Asier Serranoren 3 diskoak


"Ez Esan Inori"


"Gerrari bai"


"Hoteleko kantuak"

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua).** ***Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com***


Zorionak, UNAI, atzo 7 urte bete zenduazen-eta. Laztan haundi-haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Markelen partez.


Zorionak, BEÑAT, haraiñegun lau urte bete zenduazen-eta. Amama, gurasuak eta, batez be, Oierren partez.


Zorionak, BEÑAT, atzo bost urte bete zenduazelako. Jarraittu holan, mutil haundixa izaten. Patxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, JULEN, hillaren 6xan bost urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat amamaren eta famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ENEKO, potxolo!, hillaren 10ian bederatzi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat aitta eta amaren partez.


Zorionak, JOSEFINA Kortaberria, hillaren 11n 92 urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, LOREA, bixar zure urtebetetze eguna izango da-eta. Etxekuen partez!!


Zorionak, AITANA, gure etxeko printzesak martitzenian lau urte bete zittuan-eta. Etxekuen partez.


Zorionak, MAIDER Urizar, atzo bederatzi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, AIMAR, aurreko hillian bost urte bete zenduazen-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, MARKEL, haraiñegun zazpi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, ANDER, zure 11. urtebetetzian. Etxekuen partez.


Zorionak, MIKEL (hillaren 18xan lau urte egingo dozu) eta DANEL (aurreko domekan bi egin zenduazen). Famelixakuen partez.


Zorionak, ANE, zure hamargarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, URKOren partez.


Zorionak, BERNA. Hillaren 10ian urtebete egin zenduan gure artian, eta edarto pasatzen gabiz. Parranda edarrak egin bihar doguz alkarrekin. Gora gu!!



Badira uniak bizitzan ezer barik be berezixak diranak; horrek momentuok maitte dozuzen pertsonekin konpartitziak magikuak eta ahazteziñak bihurtzen dittu. Zorionak, SANDRA eta IÑAKI. Maitte zaittuegu!


Zorionak, AITANA (hillaren 10ian lau urte), MIKEL (18xan lau urte) eta DANEL (8xan bi urte). Etxekuen partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**14an: 19.45, 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "El pasado"
*Zuzendaria:* **Asghar Farhadi**




**(2 ARETOAN)**
**14an: 19.45, 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "El gran cuaderno"
*Zuzendaria:* **Janos Szasz**




**(ANTZOKIAN)**
**14an: 19.45, 22.30**
**15ean: 20.00**
**16an: 20.30**

### "X-Men. Días del futuro..."
*Zuzendaria:* **Bryan Singer**



## BARIXAKUA 13

### GAZTELEKUA
**16.30.** Sukaldaritza. Indianokuan.

### DANTZA
**19.30.** Dantzari Eguna, Deporren eta Kezkaren eskutik. Untzagan.

### DANTZA
**20.00.** Eibarko Dantza Garaikide taldea. 3 euro. Coliseoan.

### BOXEOA
**22.00.** Boxeo gaua, Gasteiz Sport-en eskutik. Astelena frontoian.

### KONTZERTUA
**23.30.** Morau eta Beñardo. Beleko tabernan.

## ZAPATUA 14

### OLINPIADA TXIKIA
**10.00.** Autobus zerbitzua, Ego Gain-Iturburu, J.A. Mogel ikastolara joateko (bueltakoa 13.30etan).

### DOKUMENTALA
**12.30.** "El Retratista", Sergi Bernalek aurkeztuta. Alternatibak antolatuta. Arrate Kultur Elkartean.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Sukaldaritza. Indianokuan.

### DESFILEA
**18.00.** Umeen moda desfilea. El Corte Inglesean (3. solairuko terrazan).

### HERRI-KIROLA
**18.00.** Giza-froga. Untzagan.

### ARKU-TIROA
**18.00.** Urko Arkularien Klubaren eskutik. Txaltxa Zelaiko kioskoan.

### GARAGARDO JAIA
**19.00.** Karpa zabaltzea eta Markel Alberdi igerilariari omenaldia. Untzagako karpan.

### BERTSO SAIOA
**19.30.** Unai Gaztelumendi eta Jokin Uranga. Beleko tabernan.

### KONTZERTUA
**20.00.** Goruntz eta Deustoarrak abesbatzak. San Andres parrokian.

### KONTZERTUA
**23.00.** Su Ta Gar taldea. Untzagan.

## DOMEKA 15

### TXORI KANTARIAK
**09.00/14.30.** Eibarko Hiria XV. Txapelketa, JJJ Memoriala. Eibarko Txori Lagunak-en eskutik.

### TXIRRINDULARITZA
**10.30.** Sanjuanetako LXXIX. Sari Nagusia, gazteentzat. Antolatzailea: Eibarko Txirrindulari Elkartea. Untzagatik.

### KONTZERTUA
**12.30.** *"Zortzi musika forma eta ipuin bat"*, Isabel Laspiurren piano ikasleak. 3 euro. Coliseoan.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Play / Wii. Indianokuan.

### TXOTXONGILOAK
**18.30.** Beleko tabernan.

### KONTZERTUA
**19.00.** Kokein eta Anari. Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7 -1. ezk).

### GARAGARDO JAIA
**19.00.** Karpa zabaltzea.
**20.00-22.00.** ZZTorpes (Eibar, ZZ Top-en bertsioak). Untzagako karpan.

## ASTELEHENA 16

### IKASTEN
**10.11.** Sendabelarrak ikusteko irteera, Zarautz eta inguruetara. Trenaren irteera ordua Ardantzatik (Estaziñotik, 10.13etan).

## MARTITZENA 17

### HITZALDIA
**19.00.** *"Enneco, haritzaren memoria"*. Hizlariak: Patxi Abasolo eta Vicente Azpilikueta (Nafarroa Bizirik Fundazioa). Arrate Kultur Elkartean.

## EGUAZTENA 18

### IKASTAROA
**15.00-17.00.** "Atzerriko ikasketa ez unibertsitarioen tituluen homologazioa". Andretxeak antolatuta, Lanbide eta hiru.com-ekin elkarlanean. Andretxean.

### GARAGARDO JAIA
**19.00.** Karpa zabaltzea eta Eibar K.E.-ari omenaldia, Garitano eta Errastirekin.
**20.00-22.00.** The Vartools (Eibar, rock&roll). Untzagako karpan.

### AURKEZPENA
**19.00.** *"Euskararen erabilera Eibarko gazteen artean"*, …eta kitto! Euskara Elkarteak egindako ikerketaren aurkezpen publikoa (sarrera librea). …eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu, 11 solairuartean).

## EGUENA 19

### BARRAKAK 0'70 eurotan
**Egunean zehar.**

### BATZARRA
**19.00.** Kaleratzeak Stop Debabarrena-ren batzar irekia. Portalean.

### GARAGARDO JAIA
**19.00.** Karpa zabaltzea.
**20.00-22.00.** Mongo (Durango, rock&roll country). karpan.

## hildakoak

- **Jaime Baglietto Ajuria.** 51 urte. 2014-VI-8.
- **Nemesia Pellon Abascal.** 81 urte. 2014-VI-9.

## jaiotakoak

- **Markel Urain Sanz.** 2014-V-24.
- **Adron Sapkota.** 2014-V-30.
- **Jordi Navarro Zamorano.** 2014-V-30.
- **Maite Etxeberria Rodriguez.** 2014-VI-2.
- **Axel Oliver Ureña Palacio.** 2014-VI-5.
- **Wassim El Hachdani.** 2014-VI-6.
- **Yassir El Hachdani.** 2014-VI-6.
- **Alazne Avellaned Lamas.** 2014-VI-7.

## HOROSKOPOA

**ARIES**
Beroak ez dizu onik egiten, baina ate joka izango duzu hemendik gutxira. Hondartza maiteago duzunez, aprobetxatu kanpaina.

**TAURUS**
Hutsegite barregarria izango da zurea. Hasieran kezkatu egingo zara, baina gero ikusiko duzu ez duela hainbeste garrantzi.

**GEMINI**
Asteburua duzu aurretik eta gauza asko egiteko. Zergatik besteei itxaron? Ezin duzu hori zuk bakarrik egin askoz hobeto?

**CANCER**
Azken asteetako lanak bere fruituak emango ditu eta emaitzak zoragarriak izango dira. Ahaleginak lortzea dakar.

**LEO**
Zure nortasunari eutsi beharko zenioke eta ez besteek diotenagatik aldatu. Ez egin kasu besteen berba txarrei; segi zureari!

**VIRGO**
Azken egunetako estresa albo batera laga eta une gozoak bizitzeko aukera duzu aurrean. Aprobetxatu asteburu bikain hau!

**LIBRA**
Proiektu berriak hasiko dituzu eta gogotsu ekingo diozu momentu berri honi. Zure onena ematen saiatuko zara, dudarik ez.

**SCORPIUS**
Gauzak hastea erraza da; zailagoa, ordea, jarraitzea. Gogoa izatea da gakoa, eta baita ilusioari eustea ere. Aurrera beti!

**SAGITTARIUS**
Uda ederra igaroko duzu, baina hainbat konpromiso bete behar dituzu aurretik. Bide erraza? Arazo askokoa ez behintzat.

**CAPRICORNIUS**
Garagardoa gustoko baduzu, ezin pozago ibiliko zara hemendik aurreraa. Sabela ondo betetzeko saltxitxak gertu dituzu!

**AQUARIUS**
Foball ligak amaitze bidean, Munduko Kopa izango da hurrena hasten. Ez dago atsedenik: burua baloia bihurtuko zaizu!

**PISCIS**
Bizitzako une zoragarrian zaude eta ez du ematen hori aldatuko denik. Merezi duzu, holan egoteko asko borrokatuko duzu-eta.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Ekainaren 15era arte**

***MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA*** udal eskolakoen ikasturte amaierako erakusketa. *Portalean.*

✔ **Ekainaren 22ra arte**

***ARANTZA ALVAREZ LASKURAINEN*** margo eta eskulanak. *Topalekuan.*

✔ **Ekainaren 30era arte**

***IÑAKI KAPEROTXIPIREN*** argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

***JOSE LUIS MARTINEZEN*** "Paises Balticos" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

***MIKEL URIONAGUENAREN*** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

## lehiaketak

✔ **XXI. Marmitako Txapelketa "Sanjuanak"**

**Eguna eta tokia:** ekainaren 25ean, 11.30etan, Untzagan. **Izen-ematea eta informazioa:** ekainaren 19ra arte, Pegoran (010 / 943708400 telefonoetan).

✔ **On Ekin enpresa ideia-proiektu lehiaketa**

**Lanak aurkeztea eta informazioa:** ekainaren 27ra arte, ekingune.com webgunean, ekingune@ekingune.com helbidera idatzita edo 943208420 telefono zenbakira deituta.

✔ **Tripontziak Lehiaketa**

Ekimenarekin bat egin duten tabernetan jandakoari argazkia egin eta Twitterrera igo, #tripontziak idatzita. **Noiz:** Ekainaren 29ra arte. www.debabarrenaturismo/eu/gastronomia.

✔ **IV. Maskota Lehiaketa**

**Uztailaren 5ean, 11.30etan.** El Corte Inglesean, 3. solairuan.

✔ **Made In Eibar dokumental lehiaketa**

**Lanak aurkeztea:** irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. **Informazioa:** 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

## farmaziak

✔ **barixakua 13**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **zapatua 14**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

✔ **domeka 15**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **astelehena 16**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **martitzena 17**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **eguaztena 18**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **eguena 19**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

✔ **barixakua 20**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI
**Azkue (T. Etxebarria, 4)**

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 9 | | | | 8 |
| | | 2 | 6 | 5 | | 4 | | |
| 7 | | | | | | 2 | | 9 |
| | | | | | | | 5 | |
| | 7 | | 2 | | 4 | | 8 | |
| | 4 | | | | | | | |
| 8 | | 1 | | | | | | 2 |
| | | 5 | | 2 | 7 | 6 | | |
| 3 | | | | 1 | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 2 | 9 | 8 | 7 | 5 | 6 | 1 | 3 |
| 3 | 1 | 5 | 9 | 2 | 6 | 4 | 7 | 8 |
| 8 | 7 | 4 | 4 | 1 | 3 | 9 | 2 | 5 |
| 1 | 6 | 8 | 7 | 5 | 4 | 2 | 3 | 9 |
| 2 | 4 | 7 | 3 | 9 | 8 | 5 | 6 | 1 |
| 5 | 9 | 3 | 1 | 6 | 2 | 8 | 4 | 7 |
| 6 | 3 | 4 | 5 | 8 | 7 | 1 | 9 | 2 |
| 9 | 8 | 2 | 6 | 3 | 1 | 7 | 5 | 4 |
| 7 | 5 | 1 | 2 | 4 | 9 | 3 | 8 | 6 |

AURREKOEN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................112
Pegora.............................010
Udaletxea..........943 70 84 00
Portalea............943 70 84 39
Udaltzaingoa......943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa ..........943 82 01 10
KIUB ................943 20 38 43
Epaitegia ...........943 03 34 00
Iberdrola ...........901 20 20 20
Naturgas............902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
Gurutze Gorria ...943 22 22 22
Mendaro osp......943 03 28 00
Anbulategia .......943 03 25 00
Torrekua ...........943 03 26 50
Errepideak.........902 11 20 88
Ertzaintza ..........943 53 17 00
Eusko Tren ........902 54 32 10
Pesa.................902 10 12 10
Taxiak ..............943 20 30 71
........................943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

# 1. Etxebizitza

## 1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko etxea salgai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 70 m². Garajea eta trasteroa egiteko aukera. Tel. 943-530556 eta 686-679518.

## 1.2. Errentan

– Etxea alokagai. Bikote edo lagun bakarrarentzat oso aproposa. 2 logela, egongela eta sukaldea. 55 m². Oso egoera onean. Argitasun handikoa. 550 euro. Tel. 687-922254.
– Bikote gazteak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-212382.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-569245.

# 3. Lokalak

## 3.2. Errentan

– Garajea hartuko nuke alokairuan Txaltxa-zelai inguruan. Tel. 645-722611.
– Garajea alokagai Ego-Gaineko etxe berrietan (Alfan). Tel. 619-812448.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 602-396115.
– Emakumea eskaintzen da era guztietako garbiketa lanak egiteko. Tel. 943-202391.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo haurrak zaintzeko. Tel. 680-808125.
– Emakumea eskaintzen da haurrak edo nagusiak zaintzeko, baita gauez ere, eta garbiketak egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Mutila eskaintzen da arratsaldetan nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 692-304860.
– Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko eta haurrak zaintzeko. Tel. 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko eta gauez nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita orduka, asteburuetan eta udako oporretan. Tel. 602-057896.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


– Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak eskolara eramateko. Tel. 615-755991.
– Neska euskalduna eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
– Emakume euskalduna eskaintzen da sukaldaritzan jarduteko. Baita ostalaritza arloko beste lanetan ere: barran, ... Tel. 943-531201.
– Laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiekin lan egiteko. Euskara, frantsesa eta gaztelera dakiena. Baionako ospitalean lan egindakoa. Tel. 943-531201.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko gauez eta orduka. Erreferentziekin. Tel. 631-506763.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka eta interna. Tel. 602-805363.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak edo pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko, ... Tel. 672-076852.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 693-985628.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia handia. Tel. 622-037598.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-832767. Eva.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa eta orduka. Tel. 673-199638.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 679-946934.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 686-077316.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-534135.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 3 urteko esperientzia. Orduka eta baita gauez ere. Tel. 660-514858.
– Gizonezko euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-241910.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 610-658914.
– Pedagogia amaitzen diharduen ikaslea eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-591982.
– Gizonezkoa eskaintzen da peoi moduan, seguritatean jarduteko, igeltsero-laguntzaile moduan. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta haurrak eskolara eramateko. Tel. 664-065826.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-265293.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 674-638686.
– Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko, baserrian lan egiteko, peoi moduan... Tel. 688-819010.

## 4.2. Langile bila

– Emakumea behar da asteburuetan nagusia zaintzeko. Tel. 686-930915.
– Banatzailea behar dugu, sukaldaritza oinarrizko ezagutzarekin. Tel. 686-913746.
– Kamarera/o behar da esperientziarekin Eibarko taberna batean. Tel. 679-831689.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Erabili gabeko piragua salgai. Ikusteko aukera. 125 euro. Tel. 665-122368. Esther.
– Bizikleta BH Windsor salgai. Gutxi erabilita. Argia, otarra eta kandaduarekin. Gel-ezko jarlekua eta ordezkoa. 150 euro. Tel. 665-122368. Esther.
– Musika klasikoko diskoak (100) eta pop-rock-eko LP-ak salgai. Tel. 665-122368. Esther.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Kuxin (kojin) kanporatzailea salgai. Jarrita dagoenari jaikitzen laguntzeko. Tel. 943-207731 eta 605-713975.
– Baby Monitor Philips Avent jaioberriei entzutekoa salgai. Tel. 626-144098.
– Umeentzako motxila salgai. Denter markakoa. Tel. 626-144098.
– Gurpil-aulkia salgai. Ia berria eta motorrarekin. Motorra kobratuko da eta aulkia oparituko. Nagusiendako taka-taka ere salgai, otartxoa eta guzti. Tel. 943-207731 eta 605-713975.

## 6.2. Eman

– 2 hilabeteko ardi txakurkumea oparitzen da. Tel. 647-952677.
– 4 hilabeteko txakur mestizoa oparitzen da, ezin delako atenditu. Tel. 696-509360.

## 6.3. Galdu/Aurkitu

– Disko gogorra galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 695-751648.

## 6.4. Bestelakoak

– Eibarko historia industrialari buruzko dokumentuak jasoko genituzke (agiriak, planoak, piezak... Tel. 685-249526 eta 609-918803.
– Baserritar jantzia behar da, 7 urteko batentzat. Tel. 664-065826.



iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria


ZEZENBIDE AUTOESKOLA
AUTO ESCUELA
CURSOS INTENSIVOS
ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30
Autorako
Teorikoa
17 urterekin
INFORMA ZAITEZ!
San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR


EIBAR
Hipermerkatua
Laguntzarekin
EROSKI
zurekin
SANJUAN zoriontsuak!!!




# Zure selekzioak markatzen badu, zu irabazle.

Hyundai bat erosten baduzu, zuk aukeratutako selekzioak markatzen duen gol bakoitzeko, zure finantziazioaren kuota bat bueltatuko dizugulako. **Gol 1 sartzen duela, kuota 1 gutxiago.** Zure selekzioa bikain dabilela eta Mundialean 15 gol sartzen dituela, 15 kuota deskontatuko dizkizugu. Jakin badakizu. Mundial honetako golak askoz gehiago gozatzen dira.

GOL 1 = KUOTA 1 GUTXIAGO
15 GOL = 15 KUOTA GUTXIAGO

150€-rainoko itzulketa kuota bakoitzagatik.

Etorri Hyundai bat probatzera ekainaren 16a baino lehen eta 2rendako Hyundai Esperientzia baten zozketan sartuko zara, hotel-gaua eta Madrilgo Club del Fan Park zonara joateko sarrerekin. Jakin zelan Hyundai.es/tuganas helbidean.

AUPA EIBAR!

ELGOIBARKO OARSO CAR-EAN* EROSITAKO HYUNDAI BAKOITZEKO, OARSO CAR-EK **EIBAR FT-REN 5 AKZIO** EROSTEKO KONPROMISOA HARTZEN DU.

.com/HyundaiEsp .com/Hyundai.es www.hyundai.es

*Promozio baliagarria 2014ko ekainaren 30era arte Elgoibarko Oarso Car-en erositako autoentzat.*

**OARSO CAR**

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO

HYUNDAI NEW THINKING NEW POSSIBILITIES.

**ELGOIBAR**
**943 74 14 80**
**Olaso Poligonoa, 17.**

**OIARTZUN**
**943 49 48 30**
1 Errepide Nazionala, 469 km.
(Leroy Merlin-en ondoan)

**BEASAIN**
**943 80 40 54**
1 Errepide Nazionala, 419 km.
(Hotel Castilloren ondoan)

**IRUN**
**943 63 97 69**
Juan Thalamas Labandibar, 43
Behobiarako errepidea

Gama i30 eta ix35 Go! Brasil: CO2 igorpenak (gr/km): 109-182. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,1-6,9.

5 AÑOS Garantia sin límite de km.

Eskaintza baliagarria 2014ko maiatzaren 20tik uztailaren 13ra arte gama berriko Hyundai bat Hyundai Sare Ofizialeko kontzesionario batean (www.hyundai.es helbidean eskuragarri) erosi eta erosketa hori Santander Consumer EFC, S.A.-rekin finantziatuko dituzten Penintsulan eta Balearetan bizi diren partikularrentzat. Promozio mugatua gehienez 15 kuotetara. i30 1.4 Mpi 100 CV KLASS-erako itzultze-eredua, Penintsula eta Balearetan gomendatutako 11.950€-ko PVP-arekin, hilaren amaierara arte baliagarria, BEZ, garraioa, matrikulazio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE 5 Plana (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzen bete beharrari lotuta) barne. Kuota bakoitzeko gehienez jota 150€ bueltatuko dira aipatutako modeloarengatik, eta muga 15 kuotetan dago. Ez dira golak modura kontabilizatuko jokoaren arauzko denboratik kanpo lortutakoak (penalti txandak), ezta anulatutako golak ere. Gutxieneko zenbatekoa aipatutako modeloa finantziazteko: 11.000€ 48 hilabeteko gutxieneko epean. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziazioa. Ikusgai dauden modeloak: i30 Go Brasil Plus eta ix35 Go Brasil Plus. Kontsultatu i10, i20, i30, i40, ix35, Veloster, Elantra, Santa Fe eta Grand Santa Fe modeloetako itzultzeko gehienezko zenbatekoak eta finantziatzeko gutxienekoak promozio honetako legezko oinarrietan, www.hyundai.es/tuganas helbidean argitaratzen direnak.